



Irisgarritasuna sustatzeko dirulanguntza-lerro berezia

Zer obra finantzatzen dira?

Esku-hartze hauek aukera ematen dute birgaitze-laguntzen 1., 2. eta 3. lerroetan jasotako irisgarritasun-obrak egiteko. Hots, partikularren obrak zein erkidegokoak barne hartzen ditu.

Zer gastu ordaintzen dira?

Lerro honek aukera ematen du birgaitze-laguntzen 1. 2. eta 3. lerroetan jasotako irisgarritasun-obrak egiteko gastuak ordaintzeko. Hots, partikularren obrak zein erkidegokoak barne hartzen ditu.

Zer betekizun dira beharrezkoak?

Lerro hau 65 urtetik gorako pertsonen, mugikortasun murriztua dutenei edo desgaitasun sentzoriala dutenei zuzenduta dago, baita horien bizikidetzak unitateei ere. Eta 12.000 eurotik gorakoak ez diren urteko diru-sarrera haztatuak dituzten bizikidetzak unitateei ere bai. Lerro honetako dirulanguntzak eskuratu ahal izango dituzte beste lerro batzuetan aurreikusitako finantza-neurrien onuradunak badira.

Erkidegoetarako laguntzei dagokienez, kalkuluak egiteko oinarri gisa erabiliko den aurrekontu babesgarria honela lortuko da: irisgarritasunerako aurrekontu babesgarritik emandako laguntza orokorrak kenduta. Ondoren, jabetza horizontaleko parte-hartze kuotaren ehunekoa aplikatuko da.

Zer laguntza eskuratzeko eskubidea dut?

Lerro honek aukera ematen du irisgarritasunerako aurrekontu babesgarriaren % 100 estaltzeko, agindu honetako itzuli beharrik gabeko laguntzek estaltzen ez dutena, ezta kontzeptu horrengatik onuradunek jaso dezaketen eta haiek ordaindu behar duten beste edozein laguntzak ere. Aplikatu behar den ehunekoa urteko familia-errenta haztatuaren eta bizikidetzak unitateko kide kopuruaren arabera izango da, aginduan jasotako taularen arabera



	Bizikidetzeta-unitateko kideen kopurua		
	Kide 1	2 kide	3 kide edo gehiago
Diru-sarrera haztatuak			
9.000 eurora arte	% 100	% 100	% 100
9.001 eurotik 12.000 eurora	% 100	% 100	% 100
12.001 eurotik 15.000 eurora	% 25	% 50	% 100
15.001 eurotik 18.000 eurora	% 0	% 25	% 50
18.001 eurotik 25.000 eurora	% 0	% 0	% 25

26. taula: irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro bereziaren ehunekoak.

Mailegu kualifikatuak: jarduketa babesgarriek irisgarritasun-obrak barne hartzen badituzte, aurrekontuaren zati horretarako, eta kontzeptu horregatik emandako laguntzak kenduta, zenbateko bat zehaztuko da; mailegu bidez estali daiteke hori, eta mailegua, bada, irisgarritasuna sustatzeko lerro bereziaren onuradunek eskura dezakete. Urteko interes efektiboa % 0koa izango da maileguak irauten duen artean (tasa aldakorra, finkoa eta mistoa).

Eta nola aurkeztu dezaket eskaera?

Lerro hau eskuratzeko aurkeztu beharreko eskaera berriazkoa izan behar da, eta bereizi egingo dira irisgarritasuneko aurrekontua eta gainerako jarduketa babesgarriak. 3. lerroan, laguntza-eskaera hau laguntzak erkidegoari emateko ebazpena jakinarazten denetik formulatu daiteke, eta Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak proiektua onartzen duenetik hiru hilabetera arteko epean.